



HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

Zb 20. Urtarrila 2024



GUZTIAK URREZKOAK DIRA

GIZONEZKOEN ZEIN EMAKUMEZKOEN
LAU SELEKZIOEK ESTATU MAILAKO
1. FASEA GAINDITU DUTE



REAL SOCIEDAD
TXAPELDUNEN LIGAN
1. ALDIZ MULTZOKO
TXAPELDUN



EUSKAL
SELEKZIOAREN
ELASTIKO BERRIA
AURKEZTUA



EUSKADIKO BATZORDEAK
NAZIOARTEKO
MARRAZAIN
BERRIA DU

k

ADIERAZLEA KONTU GUZTIEI DAGOKIE

1/6

NEURRI HONEK
PRODUKTUAREN ARRISKUA
ADIERAZTEN DU.
HONETAN, 1/6 ARRISKU
TXIKIA ETA 6/6 ARRISKU
HANDIA DAGOELA
ADIERAZTEN DU.

KUTXABANK KREDITU ERAKUNDEETAKO
GORDAILUEN BERMERAKO FONDARI
ATXIKITA DAGO. URRIAREN 14KO
16/2011 LEGE DEKRETUAN
EZARRITAKOAREN ARABERA, FONDO
HONETAN BERMATUTAKO GEHIENEO
DIRU-KOPURUA, GAUR EGUN,
GORDAILUGILE BAKOITZEKO 100.000
EUROKOA DA.

31^{URTE}TIK AURRERA,
KONTUAK ETA
VISA DUAL
TXARTELAK
KOMISIORIK
GABE

*Jaulki eta mantentzeagatik.

DENAK
GURE
BEZERO-
ENTZAT.



Alex, 32 urte. Kutxabanken nomina (>600 €) helbideratuta duten eta Online Banka indarrean duten 31 eta 34 urte bitarteko bezero guztiek bezala, ez du komisiorik ordaintzen kontuak mantentzeagatik (**%0ko UTB eta ITN**), ezta Visa Dual txartelak jaulki zein mantentzeagatik ere.

Jon, 40 urte. Kutxabanken nomina (>600 €) helbideratuta duten 35 eta 64 urte bitarteko bezero ugarietako bat da. Gainera, hiru hilean behin txartelarekin 4 erosketa baino gehiago egiten dituen ezta Online Banka indarrean duenez, ez du komisiorik ordaintzen kontuak mantentzeagatik (**%0ko UTB eta ITN**), ezta Visa Dual txartelak jaulki zein mantentzeagatik ere.

Paulak erretiroa hartu berri du. Kutxabanken pentsioa helbideratuta duten 65 urtetik gorako guztiek bezala (>400 €), ez du komisiorik ordaintzen ez kontuak mantentzeagatik (**%0ko UTB eta ITN**), ezta Visa Dual txartelak jaulki zein mantentzeagatik ere.



3	EDITORIALA
4-6	LEHEN MAILA
7-8	BIGARREN MAILA
9-11	1. RFEF/ 2. RFEF/ 3. RFEF
12	KOPAK
13	UEFA LURRALDE KOPA
14-15	EUSKAL SELEKZIOAK
16-19	EMAKUMEEN FUTBOLA
20-21	OINARRIZKO FUTBOLA
22	EUSKAL SELEKZIOAK (AF)
23-24	ARETO FUTBOLA
26	BERRIAK

©:
EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Javier Landeta, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi y Neil Ganzabal

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Fran Rodríguez y Joseba Benito
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
info@euskadifutbol.eus

Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziak erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

URTE OLINPIKOA

2024. urtea iritsi zaigu, urte olimpikoa, eta, beraz, hauteskunde urtea kirol federazio guztientzat, baita Euskadiko Futbol Federazioarentzat ere, Lehendakaritza eta Zuzendaritza Batzorde osoa berritzea baitagokio. Espero dugu Euskadiko Kirolaren Lege berriak eraginda gauzatu beharreko egokitzapen guztiak denbora egokian amaitu ahal izatea, hauteskunde prozesua berme guztiakin garatu ahal izateko.

2024a iritsi da, eta atzean utzi dugu 2023ko ekitaldia, non Euskal Futbolak hazten jarraitu duen, bai kirol gaitasunari dagokionez, eta bai maila guztietan duen prestigioari dagokionez ere. Hori dela eta, zorionak eman nahi dizkizuegu gure Futboleko talde handia osatzen duzuen guztiok.

Albiste positiboak askotariko eremu ugaritatik iritsi zaizkigu: gure klub profesionalek euren Ligetako lehen mailetan izandako emaitza onengatik, Realak Txapel-dunen Ligan egindako ibilbide historikoan gauzatutako lan handiagatik, baita futboleko gure beheko selekzioen emaitza onengatik (laurak sailkatu dira Urrezko Faserako), areto futboleko bilakaera onagatik eta nazioarteko laguntzaile gisa Iragartzek lortutako FIFA intsignia berriagatik ere (zorionak!). Gainera, gure zelaietan duela gutxi izan ditugun indarkeria agerraldietan, gure futbol osoaren eta, oro har, euskal gizartearen erantzuna bikaina izan da.

Ezin izan dugu 2023. urtea amaitu gizonezkoen Euskal Selektzioaren partida jokatuta. Eta egia esan ekimena oso lotuta geneukan, mundu osoko ehunka federazioekin egun askotan lanean jardun ondoren. Espero dugu egindako ahalegin horiek guztiak alferrik ez izatea, eta 2024rako, azkenean, irrikaz desio dugun partida hori lortzea. Hala balitz, hantxe irauliko litzateke gure gizartearen ilusio guztia, eta zale guztien eskura dauden elastiko berde zoragarri horiekin beteko litzateke estadioa.

Barneko etengabeko hobekuntzarako jardueri dagokienez, ospatzekoa dugu gure Federazioak Kudeaketa Aurreratuko ziurtagiria lortu izana, bai eta bilakaera teknologikoko prozesuak abian jarri izana ere, administrazio mailan Novanet sistema berria eta kirol arloan bideoanalisi teknika berriak txertatuta.

2024rako osasuna opa diot Euskal Futbolari, eta hedaduraz, gure gizarte osoari.

Javier Landeta.

Euskadiko Futbol Federakundearen Presidentea.

DEPORTIVO ALAVESEK TARTEA IREKI NAHI DU JAITSIERA POSTUEKIKO

Luis Garcíaren taldea bertan urte askoan geratzeko asmoarekin itzuli da Lehen Mailara. Oraingoz, jaitsierako postuekiko tartea ireki nahian dabilta.



MENDIZORROTZAKO ABONATUEN ERREKOR HISTORIKOA

A lavesaren familiak a gora egin du eta denboraldi honetan gainditu egin du abonatuen errekorra, 17.572ko zifra historikora iritsita, klubak abenduaren hasieran jakinarazi zuenez. Gasteizko erakundeak, halaber, 'jarraitzaile txartela' kaleratu du, Mendizorrotzako komunitateko kide berrientzako abantaila eskusiboeekin.

Futbol profesionaleko elitera itzuli eta gero, Alavesek oso argi dauka bere helburua: mailari eustea. Erronka hori eskura daukate, kontuan harturik lehiaketan lehen itzuli on bat egin ondoren gai izan direla saillapenean bost talde atzean

uzteko. Almería oso ukituta dago, eta Granada jaitsiera postuen eta mailari eusteko postuen artean gora eta behera; badirudi borroka hirugarren jaitsiera postua saihes-

tean datzala.

Horretarako, arabarrek beren zenbakiak hobetu beharko dituzte erasoan. Gol faltak asko zigortu ditu orain arte.

liberygrupo.com
VTC Service
libery

- Premium Taxi
- Transfer aeropuerto-estación-hotel
- Tours turísticos
- Eventos / Galas / Congresos
- Compañías aseguradoras

BUS Service
libery

liberygrupo.com
T: 945 259 300

- Alquiler de autocares y microbuses
 - Transporte escolar y de empleados
 - Viajes turísticos / Agencias
 - Eventos / Congresos
 - Clubes deportivos / Aficiones
-

ATHLETIC CLUBEK EUROPAKO ATEA JO DU, ILUSIOZ BETETAKO IKASTURTE BATEAN

Ernesto Valverderen mutilek lehen itzulirik onena jokatu dute 1983-84 denboraldian Liga irabazi zutenetik eta badirudi Europan jarduteko helburua eskura daukatela.

Athletic 'Champions' postuetara iritsi zen ikasturtearen erdialdera, egungo talde fidagarri eta lehiakorrekin bat egiten duten zaleen ilusioa areagotuz. Zuri-gorriek erregulartasuna aurkitu dute emaitzetan, aurreko kanpaine-



tako ohiko deskonexioetatik urrun, eta Europan sartzeko hautagai sendoak dira. Real Madrilen eta Girona harrigarriaren arrastoari jarraitzen diote eta Bartzelonarekin

125. URTEURRENEKO EKITALDIEN AMAIERA

San Mameseko zabalgunean Iribarren estatua bat inauguratzea izan zen joan den abenduaren 16ko ekitaldi nagusia; egun berean, legenda zuri-gorrien talde batek Portokoen aurka jokatu zuen. Aurretik, Lezamako taldeetako klub hitzartuetako ordezkariak desfilatuta zuten. Jon Rahmek ohorezko sarea egin zuen Atletico Madrilen aurka, Ligan.

eta Atletico Madrilekin batera dihardute sailkapenaren goialdean. Erasoan gogor jotzea erabakigarria izaten ari da, Williams anaiak unerik onenean egonda.

HOTEL
GRAN
BILBAO

Un lugar donde la vida está para vivirla, para soñarla.
Planea una escapada cerca de casa.

¡Alójate con nosotros!



LIFE IS AN **EXPERIENCE**

15% de dto.
para lectores de la revista

Código: **HAMAICA**



REALA, LIGAKO ONENEN ARTEAN

Imanol Alguacilen taldea Ligako puntako taldeetako bat da. Aurten ere, Europako postuetan itxiko dute lehen itzulia.

Reala ez da itsutu Txapeldunen Ligan parte hartzeagatik, eta lehiaketa erregularrean eremu nobleari eutsi dio lehen itzuliaren amaieran.

Realaren ibilbide onak ez du inor harritzen eta datorren ikas-



turtean European sartzeko hautagai bihurtu da berriz ere. Aste barruan maila gorenean jokatu beharrak nahi baino txandaketa gehiago gitegera behartu du taldea, eta do-

TXAPELDUNEN LIGAKO MULTZOEN FASEKO LIDERRA

Juxtu 20 urte geroago, talde txuri-urdinak Txapeldunen Ligako multzoen fasea gainditzea lortu zuen eta glamourrez betetako PSG izango du aurkari final zortzirenetan. Realak multzoko lehen postuan bukatu zuen 12 punturekin, Inter, Benfica eta Salzburgoren aurretik. 2003/04 kanpainan ere azken fasean sartu zen, multzoko bigarren postuan, Juventusen atzetik.

nostiarrei gehiago kostatzen zaie partidak behar bezala ixtea. Oyarzabal kapitaina sendatu izana da, lesioaren ostean, gauzarik positiboena.

IPARBUS

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

Member of
BASQUE LUXURY

IPARBUS
VIP SERVICES

MINIBUS VIP
hasta 20 plazas

AUTOCARES VIP
hasta 47 plazas

943 491 801 | 606 305 143

www.iparbus.com

AMOREBIETA MAILARI EUSTEKO BORROKAN, BERRIZ ERE IGO ONDOREN

Amorebietak Bigarren Mailara egin duen itzulera espero bezain zaila izaten ari da. Aurrekontuen arteko aldeak garrantzi handia dauka kirol arloan.

Zornotzarrek jaitsiera postuetan bizi izan dute lehen itzulia, eta lehen itzulia bukatzerako 8 puntura zeukaten salbazioa, asko eskatzen duen maila batean.

Taldearen irregularitasunak eta 22 taldeko multzoan oraindik jokatze



dute zerrenda luzeak itxaropenaren atea irekitzen diote berriro ere Lezamako erbestean jokatu behar duen taldeari, Urritxeko instalazioa ez baitago

'JANDRO'-K MUJIKA ORDEZKATUKO DU URDINEN AULKIAN

Alejandro Castrok Haritz Mujikaren lekua hartu zuen zornotzarren aulkian, 19. jardunaldian. Vila-real C taldeko entrenatzaile ohia izan zen talde urdinaren apustua, txapelketan hainbat hilabetez jaitsiera postuetan egon zen taldearen kirol egoera larria iraultzeko. Entrenatzaile asturiarra estatuko futboleko Zilarrezko Mailan estreinatuko da.

homologatuta.

Hori bai, kanpoan jokatutako partiden erregistroak okerragoak dira. Eta oraindik ez dute lortu kanpoan irabaztea.



Baserriko esne jasangarri litro baten atzean dagoen guztia ezagutu nahi duzu?



**EGIN ERRESERBA
eta zatoz bisitan!**



www.kaikubaserria.eus

EIBARREK LEHEN MAILARA IGOTZEKO PLAY-OFFEAN ERREPIKATZEKO ERRONKA ONARTU DU

Armaginek gertu-gertu daukate play-offa lehen itzuliaren amaieran, non hamabi taldek 30 puntu edo gehiagorekin amaitu duten.

Joseba Etxeberriaren taldeak, denboraldi honetan ere, maila honetako sei onenen artean sartu nahi du igoera promozioa jokatzeko. Oraingoz, armaginen zenbakiak onak dira eta Sporting, Valladolid, Espanyol eta Racing bezalako Espainiako fut-



boleko klasikoekin ari dira nor baino nor, Leganes eta Ferrol buru diren mailan. Lehiaketako azken hilabetean, gorri-urdinek beherrakadaxoa izan zuten, bi berdin-

ENPRESA GUNEA PROIEKTUA ABIAN

Erakunde armaginak Enpresa Gunea proiektua bultzatu zuen azaroaren amaieran, eskualdeko enpresen topagune eta networking gune izateko helburuarekin. “Eibarko enpresa sarearen eta inguruen arteko harremanak sustatu eta indartuko ditugu”, azpimarratu zuten klubeko Zuzendaritza Batzordekoek. Babesleei eta laguntzaileei irekita dago.

keta eta bi porrot eginda, eta horrek urtea lehen sei sailkatuen artean bukatzea galarazi zien. Baina ondo dakite hau distantzia luzeko lasterketa dela...

An advertisement for Alzola Basque Water. The top part features the brand name 'alzola' in a blue script font, with 'basque water' and a circular logo below it. The main image shows a collection of products: a large blue plastic bottle, a smaller blue plastic bottle, a box of 'Pureza-Origen' mineral water, and a clear glass bottle with a gold cap. The products are set against a background of splashing water. At the bottom, the text reads 'AGUA MINERAL NATURAL Manantial de Alzola' and the website 'www.alzola.com'.

SANSEK PLAY-OFFEAN AMAITU DU URTEA, REAL UNION TAULAREN ERDIAN DAGO ETA SESTAOK SUFRITU EGIN DU BERE DEBUTEAN

Mailako azken hiru euskal taldeek helburu desberdinekin aurre egiten diote denboraldiari geratzen zaion zatiari: igoerako play-offa, eremu epela eta mailari eustea.

Probintzia hiriburuetakotaldeztaldez betetako multzobatean, Real B-ren filialak erritmoari eusten dio goiko aldean, eta urtearen amaieran futbol profesionalera igotzeko play-off postua betetzen zuen. Zubietakoak porrot gutxien jaso dituen taldea izan dira 2023an (bakarra, Ponferradinaren aurka etxean), talde oso lehiakorra eta gainditzeko zaila dela berretsiz.

Real Union, bestalde, posizio erosoan dago, baina betiere atzerako ispilutik jaitsiera postuei begira. Lau jaitsiera eta play-out bat askotxo dira, eta Irungoek arrisku handiagoak saihestu nahi dituzte.



Real Sociedad B-Real Union

Horretarako, norabidea aldatu eta Iñigo Idiakenez entrenatzailea fitxatu dute, Fran Justoren ordeaz. Mailan dagoen hirugarren euskal taldeak,

alegia, igo berri den Sestao Riverrek, emaitzen bidez berretsi beharko ditu sentsazio onak, putzutik aterako bada.



¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Baja diaria
- Accidentes
- Jubilación
- EPSV
- Ahorro
- Dependencia
- Autónomos
- Inversión

cmb
buzkako medikuen elkargoa
colegio de médicos de bukaia
SEGUIMEN
ASEGURU-ERTEKARITZA S.A.
CORREOIA DE SEGUROS S.L.

surne
seguros a pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN.
Easo, 7 · 1ºD
20006 San Sebastián
943 430 798



Bilbao Athletic-Barakaldo

ZURI-GORRIEN BIGARREN TALDEKOEK 13 GARAIPEN LORTU DITUZTE JARRAIAN

Denboraldi hasiera gorabeheratsu baten ondoren -porrot eta berdinketa bana-, Carlos Gurpegik entrenatzen duen taldeak garaipen bolada ikusgarria izan zuen. Hamahiru garaipen jarraian, alajaina! Benetako txapelidunen pare jokatu, eta zuri-gorriak 2. multzoko sailkapenaren buruan nabarmendu ziren. Urtearen amaieran 7 puntu ateratzen zizkioten Utebori, bigarren sailkatuari. RFEFko lehen mailara itzultzeko aukera gertuago dagoela dirudi.

BILBAO ATHLETIC DA SAILKAPENEN BURU, ETA BARAKALDOK ETA ALAVES B-K HAREN ARRASTOARI JARRAITZEN DIOTE

Multzoak euskal kolorea du, hiru euskal talde baitzeuden urte amaierako lehen bost sailkatuen artean.

Sailkapenaren beheko aldean, berriz, Arenas da gehien sufritzen ari dena.

Bilbao Athletic gora begira dago, Barakaldo egonkor ageri da igoerako play offean eta Alaves B onen artean dago kokatuta; beraz, euskal futbola irribarrez ari da maila zo-

rotz honetan. Zuri-gorrien bigarren taldea oso ondo egokitu da azken jaitsieraren ostean, eta berak markatu du sailkapenaren buruko erritmoa. Bere lidergoa berresten badu, sari potoloa lortuko du, zuzenean igoko baita. Barakaldokoak eta bazorroak zuri-gorrien bidetara jarraitu nahian dabilta, igoera postueti eusteko. Bi talde horiek egindako lan ikusgarriak ere saria izan dezake. Pixka bat atzerago dago Real C. Merezimenduz betetako taldea da. Zizelkatuta daukate Zubietako DNA lehiakorra, eta

horrek aukera eman die sailkapenaren konpromiso handieneko eremuan lekua egiteko. Gernikak konfiantza osoa du Urbietako bere zelai talismanean, sailkapenean aurrera egiten jarraitzeko, eta Arenas da euskal talde guztietatik gehien sufritzen ari dena denboraldiaren erdialdetik aurrera. Hain da horrela, izandako kirol inertzia kasarrak bere aukia aldatzera ere eraman zuela. Toño Vadillok bere gain hartu zuen Manu Calleja ordezkatzeko erronka, Gobelakoiei kemena emateko.

Coca-Cola

VITORIA LIDERRAK ERRITMOA MARKATU DU, GOIAN ERAGINKORTASUN HANDIA ERAKUTSIZ

2023aren amaieran, ez dago faborito argirik Liga irabazteko eta zuzeneko igoera lortzeko. Golek agintzen dute, eta Vitoria -golegile nagusia- dago sailkapenaren buruan.

Barakaldo burdinazko eskuz nagusitu zen mailan joan zen denboraldian. Oraingoan, ordea, euskal multzoan ez dago jaun eta jabe den liderrik eta lehen bost sailkatuek txapelketa irabaztea dute amets oraindik ere.

Urtea bukatzean, Vitoria zen sailkapenaren buru, erasoan erakutsitako kolpekada ikusgarriari esker. Unbekoek bi goletik gorako batez bestekoa zeramaten partidako. Garaipen bakarrera, Beasain berpiztua zeukaten atzean, eta beheraxeago, ia puntu berdinekin, Portugalete, Lagun Onak eta Basconia. Horiek guztiak igotzeko play-offerako hautagai sendoak dira, nahiz eta lehen postuan bukatzea igotzeko biderik laburrena den.

San Ignaziok, Deustuk, Durangoko Kulturalak, Urdulizek, Leioak, Padurak eta Alaves C-k osatzen dute atzean datorren talde homogeneoa, baina horiek guztiek, seguruenik, mailari eutsiko diotela lehenbailehen ziurtatzea izango dute buruan.

Hortik aurrera, sailkapen egoera konplikatu egiten da inplikatu-

tako taldeentzat. Anaitasunak eta Touringek abantaila txiki bat daukate, eta Derioek eta Pasaiak borroka latzean dihardute (puntuetan berdin daude) jaitsierara daraman gune gorritik irten nahian.

Ondarroako Aurrerak, hain zuzen, maila galera hori saihestu nahi du bizirauteko duen gaitasunaren erakustaldi berri batekin, eta Añorgak izugarri zail du. Azken sailkatua da eta, iaz zero garaipen lortu ondoren, etorri berria izatea ordaintzen ari da.

LIGAK 18 TALDE DITU BERRIRO ERE

Aurreko kanpainan Federazioko 3. Mailan 16 talde lehiatu baziren ere, Espainiako Futbol Federazioak onartu zuen denboraldi honetan multzo bakoitzean berriz ere 18 talde egotea, lehia areagotzeko eta txapelketa luzatzeko; izan ere, txapelketaren formatu erregularra apirilean amaitu zen joan zen ikasturtean. Txapelduna zuzenean igoz da, lau taldek play-offa jokatuko dute eta hiru jaitsi egingo dira.



Vitoria-Portugalete



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Julian Gaiarre 48 bajo
48004 Bilbao
Tlf.: 94 473 19 00
Fax: 94 473 22 21

La información en un

click



Web | www.euskadifutbol.eus
Twitter | @EFF_FVF
Instagram | EFF_FVF

REALA ETA ATHLETIC KOPAKO FINALERDIETARAKO SAILKATU DIRA

Bi euskal taldeek sasoi bikainean daudela berretsi zuten, Celta eta Bartzelonaren aurka jokatu, eta horiek kanporatuta. Kopako finalera iristea dute, orain, amets.



Realari eta Athletici asko gustatzen zaie K.O. txapelketa. Donostiarrak txapeldun izan ziren 2020an, eta bilbotarrek, dagoeneko, bost finalerdi kateatu dituzte jarraian. Eta denboraldi honetan ere, titulurako azken lau hautagaien artean sartu dira bi-biak, honako hauek mendean hartuta: final laurdenetan Celta (1-2 Balaidosen, Oiartzabal eta Beckerren golekina) eta Barça (4-2 San Mamesen, Guruzeta, Sancet eta Williams anaien tantoekin - azken bi horiek luzapenean-).

Ibilbide ikusgarria egin dute, eta apirilaren 6an Cartujan jokatu den final handian errematea eman nahiko diote. Horretarako, hori bai,



finalerdiak gainditu behar dituzte oraindik.

Final zortzirenetan, Athleticcek Alaves kanporatu zuen San Mamesen (2-0) euskal derbian, Villalibreren bi goli esker, eta Realak aurrera egin zuen, Osasunaren aurka etxetik kanpo lortutako garai-penari esker (0-2), Oiartzabalek eta Merinok egindako tantoekin.

REAL UNION, FEDERAZIO KOPAKO FASE AUTONOMIKOKO TXAPELDUNA

Irungoek 1-0 irabazi zioten Deriori final handian. Ondoren, fase nazionalako final hamaseirenetan galdu zuten Marino de Luancoren aurka (2-1).

Lau euskal taldek parte hartu zuten denboraldi honetan Federazio Kopako fase autonomikoan. Finalerdietan, Real Unionek 0-1 irabazi zion Arenasi Gobelan eta Derio 1-2 nagusitu zen Leioaren aurka Sa-

BARAKALDO ETA GERNIKA ERORI DIRA 1. KANPORAKETAN

Malagak (penaltietan, 0-0) eta Unionistek (0-2) euskaldunak kanporatu zituzten Lasasarren eta Urbietan, hurrenez hurren. Eta hauek egin zuten aurrera: Eibar, Real, Athletic, Alaves eta Sestao River. Atariko fasean, Santurtzik galdu egin zuen Tureganoren aurka (3-1).

SESTAO, 2. KANPORAKETAN KANPORATUTAKO BAKARRA

Celtak bere nagusitasuna erakutsi zuen Las Llanasen (1-2), River bikainen baten aurka. Lehian zeuden beste bost euskal taldeek aurrera egin zuten: Alaves, Real, Amorebieta, Eibar eta Athletic.

Final hamaseirenetan, 0-3 galdu zuen Eibarrek Athleticen aurkako euskal derbian. Ipuuruako historian, tornu bidezko kontrola dagoenetik, inoizko jende gehien bildu den partida izan zen -7.499 ikusle-. Eta Amorebieta Urritxen kanporatu zuen Celtak (2-4). Zurigorriekin batera, Realak eta Alavesek lortu zuten aurrera egitea.



rirenan. Finalean, mugakoek beren hierarkia ezarri zuten, fase nazionalerako sailkatuta, non Asturiasera bidaiatzea egokitu baitzitzaien. Marino Luancok norberaren zelaiaren faktorea baliatu zuen final zortzirenetara sartzeko.



ASMAMENIK EZAK ZIGORTU EGIN DU EUSKADI UEFA LURRALDE KOPAKO LEHEN FASEAN

Asturias nagusitu zen UEFA Eskualde Kopako lehen fasean, sailkapena lortu eta txapelketako hurrengo kanporaketan sartzeko.

Anfitrioiak aurrea hartu zuen lehen jardunaldian, Murtziako eskualdearen aurka. Hala ere, zorte apur batekin, bisitariak berdinketa lortu zuten luzapen denboran ezker hegaletik egindako erdiraketa bati esker.

Iker Bilbaok eta Aitor Zubizarretak zuzentzen duten taldeak hurrengo egunean (abendua 9) egin zuen debuta Murtziako taldearen aurka. Murtziako taldeak garaipena behar zuen Asturiasko lurrak sailkapena lortzeko nolabaiteko bermearekin uzteko. Partida erritmo gutxirekin eta jarraitutasun handirik gabe jokatu zen. Bigarren zatia hasieran, taldea atzetik jarri zen markagailuan

Pituk aurrealdetik egindako jaurtiketa indartsu bati esker. 72.ean Dani Bermejok bigarrena egin zuen. Amore ematetik urrun, Euskadi partida berdintzeko gai izan zen Xabier Azkoitiak 82.ean eta Iñaki Zabaletak luzapenean egindako tantoei esker.

Euskal selekzioa honako agertokian iritsi zen azken partidara: golik gabeko berdinketa batek Murtziako eskualdea sailkatuko zuen; golekin berdintzeak eta garaitzeak euskaldunak sailkatuko zituen, eta Asturiasko Printzerriko

taldeari, irabazteak baino ez zion balio.

Bigarren partida debutaren oso bestelakoa izan zen. Iker Bilbaoren eta Aitor Zubizarretaren taldea agintzen hasi zen partidan. Eta nahiz eta etxekoei gol bat baliogabetu zitzaizen jokoz kanpo egoteagatik, Euskadik eduki zituen aukerarik onenak. Bat-batean, partida goitik behera irauli zen Borja Lopez de Aguiletak 11 metroetatik panenka bat gol bihurtzen asmatu ez zuenean, eta hurrengo jokaldian Galder Carrerarek bigarren txartel horia ikusi zuen.

Bat gehiagorekin, Asturias nagusitu zen jokoan eta Liam Lopezek sailkapeneko gola sartu zuen 85. minutuan. Sergio Gonzalezek bigarrena sartu zuen kontreraso batean 94.ean partida erabakita uzteko. Euskadik ez zuen jakin sortu zituen aukerak gauzatzeko, eta hori ordaindu egin zuen, bere momentua aprobeztatzeko jakin zuen Asturiaseko selekzioaren aurka.



14 URTEZ AZPIKO ETA 16 URTEZ AZPIKO EUSKADI URREZKO FASERAKO SAILKATU DIRA

Gizonezkoen 14 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko selekzioak Urrezko Fasean egongo dira, abenduan Galizian jokaturako lehen fasean garaipena lortu ondoren.

Gure bi taldeen eta Asturiasen arteko lehen norgehiagoka A Mardroan izan zen. Haizea nagusi izan zen Vigoko RC Celtaren kirol hirian, baina horrek ez zuen lehiaketa eragotzi.

14 urtez azpikoa izan zen debuta egin zuen lehena. Mikel Duque, Andoni Loran eta Abel Ruiz de Arbulu talde gidaritzan, nagusitasunez erabaki zuten lehen partida. Adrian Sieirok oso goiz jarri zuen Euskadi aurretik markagailuan, area kanpotik jotako bolea bati esker. Julen Rafaelek eta Oihan Mimenzak bina gol eginda biribildu zuten garaipena.

Beñat Etxebarria, Borja Viguera eta Jaime Zumalakarregiren taldearen gidoia guztiz kontrakoa izan zen. 16 urtez azpikoa ez zen behar bezala sartu partidaren, eta, baloiaren irteeran izandako galera baten ondoren, atzetik jarri zen markagailuan. Erreakzioa bikaina izan zen eta Oihan Telletxea, Danel Narvarte eta Ander Carmoñaren golei esker, atsedendira abantailarekin iritsi ziren markagailuan. Christian Imgak markagailuko aldea handitu zuen. Asturiasek bi gol sartu zituen partidaren azken txanpan eta gure kadetek sufritu egin zuten garaipena lortzeko eta 3-4ko emaitzari eusteko.

Bigarren jardunaldian, Euskadik anfitrioiaren aurka jokatu zuen, Galiziako selekzioaren aurka, Coiako federazio zelaian. Mikel Duque, Andoni Loran eta Abel Ruiz de Arbuloren mutilak aurkariak baino hobeto sartu ziren ber-



14 urtez azpikoak



16 urtez azpikoak



degunera, eta eraginkortasun handia erakutsiz, berriz ere oso goiz jarri ziren aurretik, Julen Rafaelen eta Aitor Aceredaren golei esker. Galiziak distantzia gutxienez murriztu zuen arren, 14 urtez azpikoek neurketako momentu erabakigarriak kudeatzen jakin zuten. Gorka Isusquizarak 3-1eko sartu zuen burukada eder baten bidez, eta horrek eman zion taldeari lehen postua eta Urrezko Faserako sailkapena.

16 urtez azpiko selekzioa partidei buelta ematen espezializatu

zen. Oihan Sarasolak penalti bat gelditu zuen lehen minutuan, baina ezin izan zuen ezer egin hasierako 0-1eko eragozteko. Beñat Etxebarriak, Borja Viguera eta Jaime Zumalakarregik zuzentzen duten taldea partidaren bere lekua hartuz joan zen, eta berriro ere Oihan Telletxea agertu zen, markagailuan berdinketa jartzeko. Bigarren zatian, Ilyas El Arbaouik eta Urko Liceagak markagailua irauli zuten. Sei puntu posibletik sei eskuratu zituzten, asteburu bikaina osatu eta Urrezko Faserako ziztuan joateko.

Gizonezkoen bi euskal selekzioek badakite dagoeneko martxoan jokaturako den Urrezko Fasean zeintzuk izango dituzten aurkari.

14 urtez azpikoak: Kanariak, Aragoi eta Errioxa.

16 urtez azpikoak: Gaztela eta Leon, Balear Uharteak eta Valentziako Erkidegoa.

URREZKO FASEA 15 URTEZ AZPIKO ETA 17 URTEZ AZPIKO EUSKAL SELEKZIOEN ZAIN

Emakumezkoen 15 urtez azpiko eta 17 urtez azpiko selekzioak Urrezko Fasean egongo dira, abenduan Palentzian jokatuako lehen fase gogorra gainditu ondoren.

Bideko lehenengo oztopoa anfitrioiaren taldea izan zen. Miren Arrondok, Berezi Ruizek eta Maitena Martinek zuzentzen duten 15 urtez azpiko selekzioa aurretik jarri zen markagailuan eta Iraia Fernandezek eta Uxue Telleriak egindako golei esker handitu egin zen aldea.

Hala ere, lehen zatia amaitu eta bigarren zatiko berdinketak zaildu egin zuten partida. Maddi Martinek berriro jarri zuen Euskadi aurretik. Neurketaren azken minutuetan, Iraia Fernandezek bere bigarren eta hirugarren golak sartu zituen, gure taldeari lasaitasuna eman eta Gaztela eta Leoni 5-3 irabazteko.

17 urtez azpikoaren partida parekatuagoa eta borrokatuagoa izan zen. Bi taldeak hurbil ibili ziren aurkariaren atetik, baina etxeokatu izan ziren markagailua desorekatu zutenak atsedenaldira iritsi aurretik. Atsedenaldiaren ostean, Jon Kepa Gonzalezek, Eztizen Merinok eta Yvonne Mendivek zuzentzen duten taldeak hobera egin zuen eta aurkaria baino gehiago izan zen, Patricia Mugaburerekin bitartez berdinketa lortuz.

